EPE EUSKADIKO ADMINISTRAZIO OROKORRA 2026. ESPETXE ADMINISTRAZIOKO FAKULTATIBOEN GOI-MAILAKO KIDEGOA. ESKALA JURIDIKOA.

OPE ADMINISTRACIÓN GENERAL DE EUSKADI 2026. CUERPO SUPERIOR FACULTATIVO DE LA ADMINISTRACIÓN PENITENCIARIA. ESCALA JURÍDICA.

EGUNA / DÍA	ORDUA / HORA	TOKIA / LUGAR
2026/10/20 | 20/10/2026	**10:00**	**Europa Biltzar Jauregia. Green Capital Aretoa** **Palacio de Congresos Europa. Sala Green Capital** **Vitoria-Gasteiz**

EUROPA BILTZAR JAUREGIKO PLANOAK / PLANOS DEL PALACIO DE CONGRESOS EUROPA

PLANTA BAJA:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA

Planta baja

12	**Sala Green Capital**	580 m²	Sala polivalente para actividades feriales, congresuales y almuerzos.

PROBAREN EZAUGARRIAK ETA JARRAIBIDEAK

CARACTERÍSTICAS DE LA PRUEBA E INSTRUCCIONES

PROBAREN EGITURA

- Probak bi zati ditu, eta erantzun-orri bakarrean erantzungo dira.
- Galdera bakoitzak lau erantzun-aukera ditu, A, B, C eta D letrekin adieraziak. Galdera bakoitzeko erantzun bakarra da zuzena. Egiaztatu koadernotxoan dagokion zenbakiaren arabera erantzuten diozula galdera bakoitzari.
- Probaren **A ZATIAK 65 galdera** ditu, 1etik 65era zenbatuta, gai-zerrenda orokor eta espezifikoari buruzkoak eta **erreserbako** beste **5 galdera**. Erreserbako galderak, aurreko 65 galderetakoren bat baliogabetzen bada bakarrik hartuko dira kontuan. Hala ere, galdera guztiei erantzuten saiatu behar duzu. **A zatia 0 eta 25 puntu** artean baloratuko da.
- Probaren **B ZATIAK 43 galdera** ditu, 71etik 113era zenbatuta, gai-zerrenda espezifikoari buruzkoak eta **erreserbako** beste **5 galdera**. **B zatia, 0 eta 25 puntu** artean baloratuko da.
- **Zigorra:** oinarrietan ezarritakoaren arabera, **erantzun oker bakoitzeko erantzun zuzen baten balioaren herena kenduko da**. Erantzun gabeko galderek eta erantzun bikoitzek ez dute zigorrik izango.
- Probak **50 puntuko** gehieneko balioa izango du. **Zati bakoitzean 12,5 puntuko kalifikazioa (puntuazio bihurtua)** lortzen ez duten pertsonak baztertu egingo dira.
- Proba egiteko **denbora 2 ordu eta 30 minutukoa Izango da.**

ESTRUCTURA DE LA PRUEBA

- La prueba consta de dos partes que se contestarán en una única hoja de respuestas.
- Cada pregunta tiene cuatro opciones de respuesta, señaladas con las letras A, B, C y D. Únicamente hay una respuesta correcta por pregunta. Compruebe que contesta a la pregunta según el número que le corresponde en el cuadernillo.
- La **PARTE A** de la prueba consta de **65 preguntas** sobre el temario general y específico, numeradas de la 1 a la 65 más **5 preguntas de reserva.** Las preguntas de reserva únicamente se tendrán en cuenta si alguna de las 65 preguntas anteriores es anulada. No obstante, usted debe intentar responder a todas las preguntas. La **parte A** se valorará de **0 a 25 puntos**.
- La **PARTE B** de la prueba consta de **43 preguntas** sobre el temario específico, numeradas de la 71 a la 113 **más 5 de reserva**. La **parte B** se valorará de **0 a 25 puntos**.
- **Penalización:** Según lo establecido en las bases, **por cada respuesta errónea se descontará la tercera parte del valor de una respuesta correcta.** Las preguntas no contestadas y las respuestas dobles no tendrán penalización.
- La prueba tendrá una calificación máxima de **50 puntos**. Resultarán eliminadas las personas que no obtengan una **calificación** (puntuación trasformada) **de 12,5 en cada una de las partes**.
- El **tiempo** para realizar la prueba **será de 2 horas y 30 minutos.**

ERANTZUN-ORRIA NOLA BETE / CÓMO CUMPLIMENTAR LA HOJA DE RESPUESTAS

1. NAN / DNI



2. AZTERKETA-EREDUA / MODELO DE EXAMEN

Markatu megafoniaz edo zaintzaileek adierazitako eredua eta bete dagokion zirkulua erabat.

Marque el modelo que se indique por megafonía o por el personal cuidador y rellene completamente el círculo correspondiente.

3. ERANTZUNA ALDATZEA / CORREGIR UNA RESPUESTA



Adibidea: C baliogabetzeko, markatu C EZEZT/ANULAR lerroan, eta markatu A erantzun berri gisa goiko lerroan.

Ejemplo: se anula A marcando C en EZEZT/ANULAR y se señala A como nueva respuesta en la fila superior.

- Megafoniaz agindua ematen denean, bete erantzun-orriaren goiburuan eskatutako datuak: **izena, abizenak, sinadura eta NAN/AIZ zenbakia**. Zure NANa/AIZ zenbaki eta markekin adierazi beharko duzu (ikus goiko adibidea). Atzerriko dokumentuen, kasuan, adierazi haien digituak bakarrik.

- Koadernotxoa banatzen zaizunean, **adierazi** zein **azterketa-eredu** (**A** edo **B**) egokitu zaizun. Azterketa eredua adierazita ez duten probak **ez dira zuzenduko.**

- Ez banandu erantzun-orriaren ale zuria eta horia proba amaitu arte.

- Cuando se indique por megafonía, rellene los datos de la cabecera de la hoja de respuestas: **nombre, apellidos, firma y DNI/NIE**. Deberá señalar su DNI/NIE con números y marcas (vea el ejemplo de arriba). En documentos extranjeros, indique únicamente los dígitos.

- Cuando se les reparta el cuadernillo **indique** qué **modelo de examen** (**A** o **B**) le ha correspondido. **No se corregirán** las pruebas que no tengan marcado el modelo de examen.

- No separe los ejemplares blanco y amarillo de la hoja de respuestas hasta finalizar la prueba.

EZ IDATZI EZER ETA EZ IREKI KOADERNOA MEGAFONIAZ AGINDU ARTE.	**NO ESCRIBA NADA NI ABRA EL CUADERNILLO HASTA QUE SE INDIQUE POR MEGAFONÍA.**

AZTERKETA EGUNEKO ARAUAK / NORMAS DEL DÍA DEL EXAMEN

SARTU AURRETIK	ANTES DE ENTRAR
• Ateak 09:30ean irekiko dira.	• Las puertas se abrirán a las 09:30.
• Ekarri NANa, pasaportea edo gidabaimena, eta bolígrafo urdina edo beltza.	• Lleve DNI, pasaporte o permiso de conducir, y bolígrafo azul o negro.
• Erabili komunak azterketa-gunera sartu aurretik.	• Utilice los aseos antes de acceder a la zona de examen.
• **Itzali eta gorde telefono mugikorra eta baimendu gabeko beste edozein gailu elektroniko.**	• **Apague y guarde el teléfono móvil y cualquier dispositivo electrónico no autorizado.**

PROBAN ZEHAR	DURANTE LA PRUEBA
• Nortasun-agiriak ikusgai egon behar du mahai gainean azterketak dirauen bitartean.	• El documento de identidad deberá permanecer visible sobre la mesa mientras dure el examen.
• Lehenengo eta azkeneko 15 minutuetan ezin da irten.	• No se podrá salir durante los primeros ni los últimos 15 minutos.

AZTERKETA AMAITUTAKOAN	CUANDO FINALICE EL EXAMEN
• Erantzun-orriak bi ale ditu, bata zuria da eta bestea horia. Bi orriak banandu eta orri zuria bakarrik entregatu, hori kolorekoa zuk gorde.	• La hoja de respuestas consta de dos ejemplares, uno de color blanco y otro de color amarillo, separe las dos hojas y entregue únicamente la hoja blanca, guardando en su poder la de color amarillo.
• **Denbora agortu baino lehen ariketa bukatzen baduzu**, jaso eskua eta erantzun-orriaren ale zuria eta galderen koadernotxoa entregatu. Momentu horretan aretotik kanpora atera zaitezke.	• **Si finaliza antes del fin del tiempo previsto**, levante la mano y entregue la hoja blanca de la hoja de respuestas y el cuadernillo de preguntas. Entonces podrá salir del recinto.
• Azterketako **azkeneko 15 minutuetan zure lekuan egon beharko duzu**, denbora bukatu arte.	• **En los últimos 15 minutos** del ejercicio deberá permanecer en su sitio hasta agotar el tiempo.
• **Denbora bukatzen denean**, zaintzaileari erantzun-orri zuria eman eta zuretzat gorde erantzun-orri horia eta koadernotxoa.	• **Cuando finalice el tiempo** entregará la hoja de respuestas de color blanco al personal cuidador, y se quedará con el cuadernillo y la hoja amarilla.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA

- **Bertaratze-ziurtagiria** eskatu baduzu, gogoratu aretora sartzeko mahaian jasotzea.
- **Denbora bukatzen denean**, utzi idazteari eta eserita egon irteteko baimena eman arte.

- Si ha solicitado **certificado de asistencia**, recuerde recogerlo en la mesa de acceso a la sala.
- **Al finalizar el tiempo**, deje de escribir y permanezca sentado/a hasta que se autorice la salida.

PROBAREN ONDOREN / DESPUÉS DE LA PRUEBA

EMAITZEN ARGITALPENA	PUBLICACIÓN DE RESULTADOS
• **Erantzun zuzenen behin-behineko txantiloia eta galdera-sorta** argitaratuko dira https://www.euskadi.eus/empleo-publico/ helbide elektronikoan.	• **La plantilla provisional de respuestas correctas y el cuadernillo de preguntas se publicarán** en la dirección electrónica https://www.euskadi.eus/empleo-publico/
• Ariketaren **behin-behineko emaitzak urriaren 22tik aurrera, osteguna** argitaratuko dira webgune berean.	• Los **resultados provisionales del ejercicio** se publicarán a partir del **del jueves día 22 de octubre** en el mismo sitio web.

ERREKLAMAZIOAK	RECLAMACIONES
• Gorde erantzun-orriaren ale horia: zure erantzunak argitaratutako koadernotxoarekin eta txantiloiarekin egiaztatzeko aukera emango dizu.	• Conserve el ejemplar amarillo de la hoja de respuestas: le permitirá comprobar sus respuestas con el cuadernillo y la plantilla publicados.
ERREKLAMAZIO-EPEA: 10 EGUN BALIODUN, BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK ARGITARATU ETA HURRENGO EGUNETIK AURRERA.	**PLAZO DE RECLAMACIONES: 10 DÍAS HÁBILES DESDE EL DÍA SIGUIENTE A LA PUBLICACIÓN DE LOS RESULTADOS PROVISIONALES.**

Zalantzarik baduzu, galdetu zaintzaileei proba hasi baino lehen. / Si tiene alguna duda, consulte al personal cuidador antes del comienzo de la prueba.

IRRATI-MAIZTASUNEKO TRESNERIAREN BIDEZ BAIMENDU GABEKO GAILU ELEKTRONIKOAK DETEKTATZEA / DETECCIÓN DE DISPOSITIVOS ELECTRÓNICOS NO AUTORIZADOS MEDIANTE EQUIPOS DE RADIOFRECUENCIA

PREBENTZIO-JARDUERAK ETA PROBA BEHAR BEZALA GARATZEKO ARAUAK	ACTUACIONES PREVENTIVAS Y NORMAS PARA EL BUEN DESARROLLO DE LA PRUEBA
• Proban zehar debekatuta dago adimen artifizialeko sistemak edo hirugarrenekin komunikatzeko edo informazioa transmititu, jaso, hartu, grabatu, gorde, kontsultatu edo sortzeko aukera ematen duen edozein gailu edo baliabide teknologiko erabiltzea, berehala erabiltzeko moduan eramatea edo martxan edukitzea. Debekuak barne hartzen ditu, besteak beste, IA edo kamera integratua duten betaurrekoak, mikroentzungailuak, haridun nahiz haririk gabeko entzungailuak, telefono mugikorrak, erloju adimendunak, MP3 edo MP4 erreproduzitzaileak, kalkulagailu elektroniko edo programagarriak eta antzeko gailuak. Zerrenda adibide gisa ematen da.	• Durante la prueba se prohíbe utilizar, portar en condiciones de disponibilidad inmediata o mantener operativos sistemas de inteligencia artificial o cualquier dispositivo o medio tecnológico que permita comunicarse con terceras personas o transmitir, recibir, captar, grabar, almacenar, consultar o generar información. La prohibición comprende, entre otros, gafas con inteligencia artificial o cámara integrada, pinganillos, auriculares alámbricos o inalámbricos, teléfonos móviles, relojes inteligentes, reproductores MP3 o MP4, calculadoras electrónicas o programables y dispositivos similares. La relación es meramente enunciativa.
• Debekatuta dago belarrietako tapoiak edo entzungailuak erabiltzea. Martxan egon behar duten gailu mediko edo laguntza-gailuak (intsulina-ponpak, glukosa-monitoreak, entzumena laguntzeko sistemak edo antzekoak) aldez aurretik jakinarazi beharko dira, justifikazio medikoarekin, edo, bestela, egun berean, ariketa hasi aurretik (eta beharrezko justifikazio medikuarekin), aretoko arduradunei. Arrazoi medikoengatik, edoskitzeagatik edo antzeko egoerengatik telefono mugikorra eskura izan behar baduzu, jakinarazi: arduradunaren mahaian utziko da. Behar duzunean erabili ahal izango duzu, zaintzaileek gainbegiratuta.	• No se permite el uso de tapones o auriculares. Los dispositivos médicos o de apoyo que deban permanecer operativos (bombas de insulina, monitores de glucosa, sistemas de asistencia auditiva u otros análogos) deberán comunicarse con antelación, y con la justificación médica correspondiente, o, en su defecto, el mismo día, antes del inicio del ejercicio (aportando la debida justificación médica), al personal responsable del aula. Si por razones médicas, de lactancia u otras análogas necesita disponer del teléfono móvil, comuníquelo: quedará depositado en la mesa del personal responsible. Podrá acceder a él cuando lo precise bajo supervision del personal cuidador.
• Irrati-maiztasuneko detektagailuak erabiliko dira, probaren osotasuna eta hautagaien arteko berdintasuna babesteko. Horrek ez du inola ere ekarriko gorputz-miaketarik edo erregistrorik, ezta gailuak atxikitzerik edo haien edukia ikusterik ere.	• Se emplearán equipos detectores de radiofrecuencia con la finalidad de preservar la integridad de la prueba y la igualdad entre aspirantes. Su uso en ningún caso conlleva registros corporales ni cacheos, ni la retención de dispositivos o el acceso a su contenido.
• Zure postuari lotutako seinale bat hautematen bada, proba ez da etengo. Ariketa entregatu ondoren, gertatutakoa argitzeko eta zure gailuak kanpotik erakusteko borondatezko laguntza eskatu ahal izango zaizu. Uko egin diezaiokezu, eta ukoak ez du inolako ondoriorik izango. Gertakaria aktan jasoko da, eta, zuk baimena ematen baduzu, gailuaren kanpo-itxura baino ez da argazkiz jasoko, pantaila, edukia edo hirugarrenen daturik jaso gabe.	• Si se detecta una señal asociada a su puesto, la prueba no se interrumpirá. Una vez entregado el ejercicio, podrá solicitarse su colaboración voluntaria para aclarar lo ocurrido y para la exhibición externa de sus dispositivos. Puede negarse, y la negativa no tendrá consecuencia alguna. La incidencia se documentará en acta y, si usted lo consiente, podrá fotografiarse únicamente la apariencia externa del dispositivo, sin captar pantalla, contenido ni datos de terceros.
• Gailu baimendu gabe bat erabiltzen ari dela zuzenean ikusten bada, jokabide hori eteteko behar-beharrezko neurriak hartuko dira berehala.	• Si se observa directamente la utilización de un dispositivo no autorizado, se adoptarán de inmediato las medidas estrictamente necesarias para poner fin a la conducta.

- Gailu baimendu gabe bat erabili dela edo arau hauek larriki urratu direla egiaztatzeko elementu nahikoak badaude, epaimahaiak ariketa baliogabetu ahal izango du, eta ez da zuzenduko ez baloratuko, betiere interesdunari 10 egun balioduneko entzunaldia eman ondoren eta pertsonalki jakinarazitako ebazpen arrazoituaren bidez. Hautaketa-prozesuan izango dituen ondorioak deialdiaren oinarrietan ezarritakoak izango dira. Seinale bat hautemate hutsak ez du, berez, urraketarik egiaztatzen.

- Datuen babesa: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babestekoak eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak, eta datuak babesteko arloan indarrean dagoen gainerako araudiak xedatutakoa betez, datu pertsonalak «Hautaketa-prozesuak» izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira. – Tratamenduaren arduraduna: Enplegu Publikoaren Zuzendaritza. Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saila. – Tratamenduaren helburua eta aurreikusitako erabilerak: enplegu publikora sartzeko prozesuak kudeatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen lanpostuetarako lekualdatze-lehiaketak eta zerbitzu-eginkizunak kudeatzea. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako aldi baterako lan-eskaintzetarako, bitarteko funtzionarioen izendapenetarako eta aldi baterako lan-kontratuetarako lan-poltsak kudeatzea (eratzea, integratzea eta birbaremazioa). – Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean egindako eginkizun bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiltzeko, bai eta lan-zuzenbidearen eta gizarte-segurantzaren eta -babesaren arloko betebeharrak betetzeko ere (abenduaren 1eko 11/2022 Legea, Euskal Enplegu Publikoarena; urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 9.2.b) artikulua). – Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea, bai eta informazio gehigarrian azaltzen diren beste eskubide batzuk ere. – Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza webgune honetan kontsulta dezakezu: https://www.euskadi.eus/web01-aprat/es/ac34aRatWebWar/control/fichaRat/1281

- Isiltasun osoa gorde behar da. Jokabide desegokiak edo gainerako hautagaientzat gogaikarriak diren jokabideek azterketa-gunetik kanporatzea ekar dezakete.

- Cuando existan elementos suficientes que acrediten el uso de un dispositivo no autorizado o un incumplimiento grave de estas normas, el Tribunal podrá anular el ejercicio, que no será corregido ni valorado, previa audiencia de 10 días hábiles a la persona interesada y mediante resolución motivada notificada personalmente. Sus efectos en el proceso selectivo serán los previstos en las bases de la convocatoria. La mera detección de una señal no acredita por sí sola incumplimiento alguno.

- Protección de datos: en cumplimiento del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (Reglamento general de protección de datos), la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales y demás normativa vigente en materia de protección de datos, los datos de carácter personal serán incorporados a la actividad de tratamiento denominada «Procesos selectivos». – Responsable del tratamiento: Dirección de Empleo Público. Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno. – Finalidad y usos previstos del tratamiento: gestión de procesos de acceso al empleo público y gestión de concursos de traslados y comisiones de servicios a puestos de trabajo de personal funcionario y laboral de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos. Gestión de bolsas de trabajo (constitución, integración y rebaremación) de ofertas de trabajo de carácter temporal y de nombramiento de personal funcionario interino y contrataciones de personal laboral temporal de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos. – Legitimación: tratamiento necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento y en el cumplimiento de obligaciones en el ámbito del derecho laboral y de la seguridad y protección social (Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco; Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público; Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores; artículo 9.2.b) del Reglamento (UE) 2016/679). – Derechos: a acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos que se explican en la información adicional. – Información adicional: puede consultar la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en el sitio web: https://www.euskadi.eus/web01-aprat/es/ac34aRatWebWar/control/fichaRat/1281

- Debe mantenerse silencio absoluto. Las conductas inadecuadas o molestas para las demás personas aspirantes podrán dar lugar a la expulsión del recinto.